



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

97. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Otsaila





NABARMENDU BEHARREKOA

> EGEF-Euskadi 2014-2020 Programa Operatiboa onartu dute

Europako Batzordeak EGEF-Euskadi 2014-2020 Programa Operatiboa onartu du. Programa horrek zehazten ditu 2014-2020 programazio-aldi berrian Eskualdeko Garapeneko Europako Funtsaren finantzaketarekin Euskadin garatu beharreko estrategia eta jarduerak.

Programaren helburua Euskadin hazkunde ekonomiko iraunkorra bultzatzea da honako hauen bidez: enpleguak sortuta (batez ere, balio erantsi handiko sektoreetako jarduerak) eta Euskadiko ekonomiaren lehiakortasuna hobetuta hazkunde adimentsuko eta berritzaileko hazkunde-ekimenen bidez.

Onartutako Programaren arabera, Euskadik Europako laguntzen 176,45 milioi euro jasoko ditu ekintzak garatzeko. Haien guztizko finantzaketa 352,9 milioi eurokoa izango da. Programa Operatiboaren % 90 inguru oinarritzko lehentasun hauetan oinarrituko da: ikerkuntza, berrikuntza, ETEak, IKT eta karbono baxuko ekonomia, 2020 Europa Estrategiak ezarritako lehentasunen arabera.

Zehazki, Euskadiko 2014-2020 EGEF Programa Operatiboaren lehentasunak honako hauek izango dira:

- Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza indartzea (aurrez ikusitako finantzaketaren % 44,6).
- Karbono-igorpen baxuko ekonomiara bideratutako aldaketa bultzatzea sektore guztietan, eta mugigarritasun iraunkorra sustatzea (% 25,9).
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sarbidea, erabilera eta kalitatea hobetzea merkataritza elektronikoko produktu eta zerbitzuen garapenean inbertsioa eginda. Bestalde, teknologia horien eta administrazio elektronikoaren eskari handiagoa bultzatzea (% 10,5).
- ETE-en lehiakortasuna hobetzea enpresa-espirtua bultzatuta industrializazioko eta espezializazio adimentsuko Euskadiko Planak finkatzen duen moduan (% 8,7).
- Klima-aldaketara egokitzeko gaitasuna eta arriskuen kudeaketa eta prebentzioa bultzatzea, uholdeen eta basoko suteen arriskuei aurre eginda (% 5,4).
- Ingurumena zaintzea eta babestea eta baliabideen erabilera eragingarria bultzatzea bioaniztasuna babestuta eta berriz ezarrita (% 4,5).

Onartutako testuaren arabera, Programa Operatiboan aurrez ikusitako ekintzek emaitza hauek sortuko dituzte:

- Inbertsio pribatuko 452,6 M euroko zenbatekoa aurrez ikusi dute eta hori berrikuntza-proiektuei edo I+G arlokoiei emandako laguntza publikoarekin bateratuko da.
- 50.000 ETEk baino gehiagok jasoko du lehiakortasuna bultzatzeko babesa.
- Enpresen % 75ek erabiliko dituzte zerbitzu administratibo elektronikoak.
- Energiako 100 MW baino gehiago sortuko dute energia-iturri berriztagarrien bidez.
- 6.000 etxek baino gehiagok lortuko ditu energia-kontsumoaren sailkapen hobearen onurak.
- Ia 2.500 lagunek lortuko dituzte uholdeen aurkako babes-neurrien onurak.
- Habitat naturalen 680 hektarea baino gehiago babestuko da eta horrek kontserbazio-egoera hobetzea eragingo du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/index.cfm/es/atlas/programmes/2014-2020/Spain/2014es16fop021

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51->



> Gipuzkoako Foru Aldundiak Genero Berdintasunaren Europako Institutuarekin lankidetzan dihardu

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Berdintasun Zuzendaritzaren bidez, eta Genero Berdintasunaren Europako Institutuak (EIGE) gizonen eta emakumeen arteko berdintasun arloan lankidetzaz-lerroa hasi dute.

EIGE gizon eta emakumeen berdintasunerako Europako Batzordearen agentzia da. 2000. urtean jarri zen martxan eta egoitza Vilniusen dago, Lituaniako hiriburuan. Institutua berdintasunaren arloan ezagutza biltzeko Europako zentro bihurtzeko asmoarekin sortu zen. Horretarako, ezagutza eta esperientziak biltzen, sortzen eta trukatzeko oinarritzen du lana.

Testuinguru horretan, eta EIGEk eskatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasun Zerbitzuko Zuzendariak azken hilabeteetan Europako Institutuarekin lan egin du. "Generoaren mainstreaming" arloan oinarritu du lana, eta hainbat gairekin lotutako proiektu ugarietan lagundu du: genero-eraginaren alde aurreko ebaluazioa, berdintasuneko prestakuntza, berdintasunaren aldeko erakunde mailako aldaketa-prozesuak eta abar.

Lan honek bi emaitza izan ditu:

- Alde batetik, Europa mailan garatzen ari diren planteamendu, eztabaida eta esperientziekin lotuta berdintasun-zerbitzuaren ezagutza eta arlo horretako harreman-sarea handitu du.
- Beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Euskadin egiten den lana ezagutarazteko aukera eman du. Hori bereziki erabilgarria eta interesgarria izan da, Europako agentzien ikuspegia oraindik ere Estatuetan oso oinarrituta baitago eta ez baitu eskualde mailan gertatzen dena jakiteko gaitasun gehiegirik. Horrekin lotuta, aipatzekoa da euskal administrazio batek EIGErekin zuzenean lan egin ahal izan duen lehen aukera izan dela, baita estatu mailakoa izan gabe egin duen lehenengoa ere.

Halaber, lankidetzaz honen esparruan, EIGE-k Gipuzkoako Foru Aldundiako ordezkariak gonbidatu zuen bizitza pertsonala, familiakoa eta profesionala uztartzeko Vilnius hirian antolatutako lan-mintegian parte-hartzera. Mintegi honetan adituek, hainbat estatu kidek eta Europar Batasuneko ordezkariak hartu zuten parte. Mintegi honi esker Gipuzkoako ordezkariak martxan dauden beste esperientziak ezagutarazi dituzte.

Informazio gehiago:

<http://berdintasuna.gipuzkoa.net>

<http://eige.europa.eu/>

<http://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/Report%20Peer%20Review%20-%20Good%20practices%20on%20reconciliation.pdf>



> **Gipuzkoako eta Iparraldeko emakumezko enpresari, profesional eta zuzendarien arteko mugaz gaindiko topaketa egin da**

Otsailaren 5ean, Biarritzen, BIHARTEAN (Gipuzkoa-Baiona Mugaz gaindiko Ganbera) elkarteak antolatuta, Gipuzkoako Emakume Enpresari, Profesional eta Zuzendarien Elkartearen (ASPEGI) eta Iparraldeko Emakume Enpresari eta Profesionalen Elkartearen (DIRIGER AU FÉMININ) arteko topaketa izan zen.

Topaketan mugaren bi aldeetako 50 bat enpresari eta profesionalek hartu zuten parte eta sektorekako hainbat lan-mahai antolatu zituzten. Lankidetzak profesionaleko harremanak egiteko harremanak trukatzeko eta esperientziak partekatzeko balio izan du topaketak.

Informazio gehiago:

<https://www.aspegi.org>

<http://www.dirigeraufeminin.fr/>



KOHESIO-POLITIKA

> Markku Markkula, Eskualdeen Batzordeko presidente berria

Markku Markkula, Espoo Udaleko kidea Finlandian eta Finlandiako Parlamentuko diputatu ohia (1995-2003), aukeratu dute Eskualdeen Batzordeko presidente berri gisa. Erakunde horrek Europar Batasuneko tokiko eta eskualdeko erakundeak ordezkatzen ditu eta organo aholku-emailea da.

Presidente berriaren izendapena Eskualdeen Batzordearen beraren agintaldi berriaren hasierarekin bat dator. Hain zuzen ere, Markkulak hurrengo bi urte eta erdian izango du eskualdeen batzarreko presidentetza, eta aldi hori amaitzean beste presidente bat aukeratuko dute. Eskualdeen batzordearen lau urteko agintaldi bakoitzak bi presidentetza ditu, bakoitza bi urteko iraupenarekin.

Markkulak azpimarratu du Eskualdeen Batzordeko agintaldia hezkundean eta enplegu-sorreran oinarrituko duela. Horretarako, Europako udalerri eta eskualdeen parte-hartzea bultzatuko du. Sektore publiko eta pribatuen arteko aliantza integratzailea sortzearen alde egiten du, eskualde eta udalerriak babesteko mugaz gaindi.

Era berean, Markkulak babesten du Batzordetik aurrez ikusitako inbertsioko 315.000 milioi euroen zati handi bat industria sektorean eta gizartean berrikuntzarako bideratzea. Lehentasunezko zat jotzen du ekintzailetasun dinamikoa ahalbidetzeko baldintzak hobetzea eta herritarren konfiantza berreskuratzeko eta haiekin elkarriketa sendotzeko neurriak sartzea.

Informazio gehiago:

<http://cor.europa.eu/es/news/Pages/markku-markkula-elected-president-of-the-committee-of-the-regions.aspx>

<http://cor.europa.eu/es/news/Pages/cor-prepares-for-new-mandate.aspx>



> Europako Batzordeak dagoeneko FEADER funtsak kofinantzatuko dituen Landa Garapeneko 27 Programa berri onartu ditu

Europako Nekazaritza Politika Komunik (NPK) kide diren Estatuak finantza-hornidura ematen die. Hori nazio mailan edo eskualde mailan kudeatzen da, konfinantzatutako urte ugaritako Programen babesean. Guztira, 28 Estatu kideetan 118 Programa daude, 2014-2020 aldirako guztira 99.600 milioi euroko hornidurarekin, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez bideratuta (FEADER).

Testuinguru horretan, eta kide den herrialde eta eskualde bakoitzari esleitutako Europako finantziak onartzeko, gaur egun Batzordearen aurrean dagozkien lurraldeetan aplikatu beharreko Landa Garapeneko Programen (LGP) proposamenak prestatzen eta aurkezten ari dira.

Horrekin lotuta, Europako Batzordeak otsailean 18 Programa berri onartu zituen, eta 2014ko abenduan hartutako 9 LGPeekin batera, guztira 27 plan onartu dituzte. 27 LGP horiek, 35.000 milioi euro baino gehiagoko balioarekin, gutxi gorabehera aurrekontuaren % 36 inguru dira.

Honako hauek dira orain gutxi onartutako landa-garapeneko programak: Bavaria (Alemania), Hesse (Alemania), Mecklemburgo-Mendebaldeko Pomerania (Alemania), Mendebaldeko Renania -Westfalia (Alemania), Flandes (Belgika), Eslovenia, Eslovakia, Estonia, Espainia (Nazio mailan), Aland (Finlandia), Frantziako Landa Sare Nazionala Programa, Mayotte (Frantzia), Lituania, Letonia, Herbehereak, Azoreak (Portugal), Madeira (Portugal) eta Ingalaterra (Erresuma Batua).

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/agriculture/cap-post-2013/index_en.htm



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Eusko Jaurlaritzak Europa 2020 testuinguru estrategikoaren arabera I+G laguntzen deialdia jarri du martxan

Urtarrilaren 1etik, Letoniak hartu du bere gain Europar Batasuneko Kontseiluaren txandakako presidentetza.

Letoniako Presidentetzaren programak oinarritzko hiru ardatz finkatu ditu: Europa lehiakorra lortzea, Europar Batasun digitalerantz aurrera egitea eta Europar Batasunak munduan betetzen duen rola indartzea.

Inbertsioa berriro aktibatzeaz gain, Letoniak oinarritzko lehen ardatzean sartu du langabeziaren aurkako borroka eta gai hauen inguruan arreta berezia jarriko duela adierazi du: enpleguen kalitatea, iraupen luzeko langabeziaren arazoa eta ezinduen lan-munduratzea. Letoniako Presidentetzaren zati ekonomikoenaren beste kapitulu bat izango da Japoniarekin, Vietnamekin eta AEBekin merkataritza askeko tratatuen amaiera.

Energia mailako batasuna bultzatzen ere saiatuko dira. Horren arabera, energia-independentzia sendotzeari garrantzi berezia emango diote energiaren barneko merkatuaren garapena osatzeko helburuarekin, eta energia-azpiegituren arazoei arreta emanda.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.net/eu/news/24515-acuerdo-autorizacion-del-gasto-superior-000-000-euros-para-financiacion-durante-ejercicio-2015-del-programa-apoyo-realizacion-proyectos-desarrollo-nuevos-productos-programa-gaitek-resumen-del-acuerdo-del-consejo-gobierno-del-2015?track=1>



> Ertzaintzak HORIZON 2020 Europako programa batean parte hartuko du

Ertzaintzak jakinarazi duenez, datozen hilabeteetan, Europar Batasuneko beste polizia-gorputz batzuekin, enpresa teknologiko eta Europako unibertsitateekin batera, komunitate mailan polizia-ikerketa eta herritarren segurtasuna hobetzera bideratutako ekimenen diseinurako programa batean parte hartzea erabaki du.

“Gizarte Seguruak” ekimena Europako Batzordeak sustatzen du, HORIZON 2020 berrikuntza eta teknologia babesteko programaren barruan, eta haren asmoa da gaizkile-talde organizatuei teknologia berriek ematen dizkieten baliabideen aurrean Europako polizia-gorputzen erantzun-gaitasuna hobetzea.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.net/eu/news/24757-ertzaintza-asume-reto-participar-programa-marco-investigacion-innovacion-horizonte-2020-union-europea>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Europa 2020ren adierazleak: Estatu kideen emaitzen alderaketa (Europako Batzordea)

Eskualdeko Politikaren Zuzendaritza Orokorraren Analisi unitateak 28 herrialde kideen adierazle sozioekonomikoen multzoa eguneratu du.

Adierazle guztiak nazio mailan, hiru hazkunde motatan multzokatuta, eta eskualde mailan adierazita datoz. Gainera, eskualde motaren arabera biztanleriaren banaketa eta hirigintza mailaren arabera adierazle batzuk daude adierazita. Horiek landa-inguruneen eta hirien arteko aldea nabarmentzen dute.

Herrialde bakoitzerako, bertako emaitzak EBko batez bestekoarekin alderatuta daude, baita emaitza onenak eta okerrenak izan dituzten estatu kideekin ere.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/index.cfm/en/information/publications

> Mugaz gaindiko lankidetzaren gobernantzaren kartografia (MOT)

MOT – Mugaz gaindiko Misio Operazionalak, Frantziako Gobernuaren mendeko organismoak, bere lurraldean mugaz gaindiko proiektuak egitea errazteko, Europako mugaz gaindiko lankidetzarako gobernantzaren kartografia eguneratu du eta argitaratu egin du.

Bilduma kartografikoak 150 irudi biltzen ditu, eta horien bidez, Europako mugaz gaindiko lankidetzaren gobernantzaren egungo errealitatea ilustratzen da. Mapa horietan, mugaz gaindiko lankidetzarako dauden organismoak daude azalduta, baita lankidetzaren sartuta dauden lurraldeak ere (herrialdeak, eskualdeak, udalerriak...).

Informazio gehiago:

<http://www.espaces-transfrontaliers.org/actualites/news/news/show/la-mot-met-en-ligne-150-cartes-pour-illustrer-la-cooperation-transfrontaliere/>